

# ORERETAKO XXXV. SAGARDO EGUNA



Sagardo Egunaren aurkezpena, joan den larunbatean, Arramendin. Mikel del Val

## Sagardoz zipriztindutako jai giroa nagusi izango da bihar

Sagardo Egunaren 35. ekitaldia egingo dute bihar, eta egun osoz zer gozatu izango da herriko kaleetan. Arratsalde, 40 sagardotegitako uzta dastatzeko aukera izango dute Zumardira bertaratzen direnek.

**ARKAITZA** taberna  
Gutxi eta maiz, umore alaiz!  
Gamon Zumardia • Tel.: 943 522 862 • ORERETA

**ONGI PASA SAGARDO EGUNA!**

# Beerlagun

www.oarsoak.com

UGALDETZO INDUSTRIAGUNEA - ZUAZNABAR KALEA 137. OIARTZUN  
TEL. 943 49 01 62. oarsoak@oarsoak.com

**IKERNE ZARATE GARTZIARENA**  
ERRETERIA-ORERETA

Neketsua izan omen da bidea, traba ugariz josia, baina horiek denak gaingituta, bihar egingo dute Sagardo Eguna Erreteria-Oreteran. Hogeita hamabosgarren ekitaldia izango du udalerriko jai egutegian letra larriz idatzitako egunak. Erreferente bilakatu den eta arrasto itzela dakarren zalantzarik ez da.

12:00etan hasiko da Sagardo Eguna Foru Plazan egingo duten lehen txotxarekin. Hortik aurrera dultzaineroek, trikitilariak, txistulariak, dantzariak, txalapartariak eta bertsolariak girotuko dituzte bazterrak. Bigarren txotxa 18:00etan helduko da; Zumardian izango da hori, eta 40 sagardogileren uzta dastatzeko aukera izango da. Horretarako edalontzia erosi beharko da. Edalontzia, pintxo eta sagardotegi batean bazkaltzeko zozketarako zenbakia 7 euroan lortu ahalko da, zapia gehituta, 10 euro dira. Hala ere, aurreko urteetako zapiren bat dutenei horiek baliatzeko gomendatu diete antolatzaileek.

### OMENDUAK

Urtero Sagardo Egunaren alde lan egiten duten pertsonak omentzen dituzte; aurtene ere hala egingo dute. Juanfer Ricok eta Idoia Arbelaitzek egiten duten «ezinbesteko lanaren» aitortza jaso dute. Haiei zein antolaketan lanean gogor ari direnei aitortzarik onena eguna giro ezin hobean gozatzea izango da; eta sagardoa gutxi, eta maiz edatea. ✕

**Gozatu**

**rosmi**  
eguna!

**LANERAKO ETA OSTALARITZARAKO ARROPA  
ETXEKO ARROPA  
BARRURAKO ARROPA GIZONEZKOENTZAKO**

Foru plaza, 21. Erreteria  
Tel. / Faxe: 943 511 887

# ORERETAKO XXXV. SAGARDO EGUNA

## Sagardozaileen aitortza hunkituta jaso du Arbelaitez

Herriko bazter denetan da ezaguna Idoia Arbelaitez. Bera da Sagardo Egunaren aurtengo omenduetako bat. Antolaketa lantalderra emakume gehiago erakartzeko lanean ari dira. Hunkituta jaso du aitortza.

### I. ZARATE GARTZIARENA ERRETERIA-ORERETA

Herrigintzaren eta euskalgintzaren gatza eta piperra, bazter denetan da ezaguna Idoia Arbelaitez. Langile prestua, beti irribarrea soinean egingo du ekarpena. Ez zuen espero, eta aitortza «pozgarria» dela esan duen arren, omendua izango zela jakitean urduritasuna eta beldurra sentitu zituela esan du orerettarrak: «Horrelako omenaldiak puntu goren batean daudenei egiten omen zaizkie, eta nik bizitzan gauza ugari ditut egiteko oraindik». Egunaren aurkezpena egin behar zuen larunbatean, eta hura hasi baino minutu pare bat lehenago ohartu zen zer edo zer arraroa bazela, «gurasoak heltzen ikusi nituen anaiarekin, eta susmoa hartu nion».

Eskerrak eman ditu. «Sentitzen duzuna deskribaezina da: maitasuna sentitzen duzu, adiskidetasuna, gurasoen aurpegiaren harrotasuna... Zerbait ongi egiten ari garela ere, eta bakan batzuegana iritsi zarela. Poza, asetze maila bete, eta malkoak». Urte mordoa egin ditu Sagardo Egunaren bueltan Arbelaitez, laguntzaile lehenik, eta antolakuntza taldean bete-beteazken urteetan: «1990eko hamarkadan edalontziak saltzen hasi nintzen laguntzaile, sagardoa zerbitzatzen gero, antolatzaileen lagun-



Idoia Arbelaitez da Sagardo Egunaren omenduetako bat. I. Zarate

tzaile ere izan nintzen, eta azkenik, antolakuntza taldean». Hutsune bakarra bide horretan espetxealdia bete zuen izan zuen.

Sagardo Egunak herriari zer ekarri dion galdetuta, argi dio: «Lagun eta familientzat elkargunea, tradizio zaharren bueltan gozatzeko aukera». Alderirik zailena emakumeen parte hartzea erdiestea dela dio penaz, «zaila da ema-

kumeak gerturatzea antolaketara». Horren adibide jarri du antolaketa taldeko hamar lagunetatik hiru baino ez direla emakumeak, «baina ari gara lanean, eragiten ari gara hori iraultzeko».

### EMAKUMEENTZAT EREMU SEGURUA

Atseginena, «besteak gozaten ikustea» dela dio. «Herria bizirik ikustea, ez dakit zein bikote sagardo egun batean ezagutu zela entzutea, edo atea jotzen dituzunean lan boluntariorako laguntza eske jasotzen den erantzuna». Horren harira belaunaldi gazteei egin die erreferentzia Arbelaitezek haien

«konpromisoa» goraiatzeko, «erabateko prestutasuna dute Sagardo Eguna izan, madalenak, edo auzoko jaien antolaketan. Egia da aukera eman behar diezula, baina erantzuna ikaragarria da».

Biharko egunari begira mezu argia zabaldu du Arbelaitezek; Sagardo Egunaren eremuan ez dute eraso sexistarik onartuko: «Eremu segurua izango da emakumeentzat, bai lanean ariko direnentzat, baita jaietan parte hartuko dutenentzat ere». ✕



Txooooo!x!

MELANIA

Madalen kalea, 2  
behea · Erreterria  
943 053 642

· Donostian, Erreterrian, Lezon, Oiartzunen eta Pasaian salmenta eta alokairuarekin lan egiten dugu ·

SINDIKATO

--- KAXUELITAK --- PINTXOAK --- **TABERNA** ---  
 --- PLATER KONBINATUAK ---  
 --- OGITARTEKOAK ---

Ongi pasa Sagardo Egunean!

Madalena kalea, 38 / 943 34 61 83 / Orereta

## ORERETAKO XXXV. SAGARDO EGUNA

# Aurtengo edalontzia ere Juanfer Ricok diseinatu du

Hiru hamarkada egin ditu Sagardo Eguna berezko ezaugarriaz janzten. Postuen zein Zumardiko agertokiaren dekorazioa, eta edalontziaren diseinua egin du urtero. Aurtengo omenduetako bat da Rico.



Sagardo Egunak Juanfer Rico omendu du aurten. Diseinuaz arduratu da 30 urtez. I. Zarate

### I. ZARATE GARTZIARENA ERRETERIA-ORERETA

Ezustean harrapatu du omenaldiak Juanfer Rico. Hogeita hamar urte egin ditu Sagardo Egunaren antolaketan parte hartzen. Bere egitekoa diseinuarekin lotuta egon da bide luze horretan bereziki, «postuen eta Zumardiko agertokiaren

dekorazioaz arduratu izan naiz, baita edalontzien irudiaren diseinuaz ere». Pandemia iritsi baino urte batzuk lehenago utzi zion antolaketan parte hartze-ari, baina ez du erabat baztertu; aurtengo Sagardo Egunaren edalontziek bere diseinua izango dute grabatuta. «Ideiak agortuta nituen jada, 30 urte izan dira eta ez da erraza gauza berriak asmatzen jarraitzea. Oreretaren iraganari errepa-

ratu nion, eta enpresa eta tailer mordoak zirela ohartuta, kalibrea irudikatzea otu zitzaidan», esan du omenduak. Kalibre-ak sagarra du helduta. «Kalibrea neurria hartzeko erabiltzen da, eta guk sagarrari kalibrea edo neurria hartua diogu».

### OMENALDIA, HUNKIGARRIA

Omenaldia «segada» gisa definitu du, hori bai, «segada ederra, atsegina eta hunkigarria». Alabak eta suhiak dantzatu zioten agurra, hunkitu egin zen. Emaztearentzat esker hitzak izan ditu Ricok: «Sagardo Egunekeo bilerak eta lanketak egitera joaten nintzenean Edurne [Dadebat] gelditzen zen alabarekin, eta orain 30 urte baditu ere, tartean txikia zen oraindik».

Diseinuarena bere zaletasun «frustratua» dela aitortu du. Sagardo Egunekeoz gain, urtero mozerrotzen du Arkaitza taberna inauterietarako, eta berea izan zen madalenetan Herriko Plazan Xanti eta Maialen dantzan jartzen dituen karrilloia egiteko ideia. Egun itxita dagoen Bitxikolore dendaren erakusleihoa txupetez betetzea ere hari otu zitzaion.

Idoia Arbelaitzekin batera sagarrondo aldatu du Arramendin, «arbolaren kustodia partekatua dugu» esan du, barez. Aitortu du pozgarria izan dela omenaldia Arbelaitzekin partekatzea, «ikaragarri langilea da eta estimu handia diot». ✕

# LANDARE

## TABERNA *Ongi pasa sagardo eguna*

Maria Lezo Kalea, 3. 20100 Orereta - Tel.: 943 51 00 31

sagardotegia

# BALEIO

sagardo naturala

Urte osoan zehar  
sagardo botilen  
salmenta

943 49 13 40

626 69 30 74

OIARTZUN



**Goieko**  
INDUSTRIA GARBITASUNERAKO  
SISTEMA ETA PRODUKTOAK

Sagardo egun  
txukuna pasa!

*Irunen eta Beran* *aurkituko gaituzu*

943 63 45 36 [www.goieko.com](http://www.goieko.com)

**943 340 342**



**RADIO TAXI** | **VITERI**  
**ERRENTERIA**

radiotaxiviteri@hotmail.com

**BETIKO TAXIA**  
**BETIKO ZENBAKIA**  
**24 orduko**  
**zerbitzua**

**CIFP – BLAS DE LEZO – BHII**



OINARRIZKO, ERDI ETA GOI ZIKLOAK  
NABIGAZIOA - MAKINAK - URPEKARITZA

**ONGI PASA!**

Eman izena telefono honetara deituz: 943 40 41 70  
[blasdelezo@pasaiaeskola.net](mailto:blasdelezo@pasaiaeskola.net)





**GAZTELU**  
OSTATUA   

Andra Mari kalea, 6. 20100 Orereta-Errenteria  
info@gazteluostatua.eus - [www.gazteluostatua.eus](http://www.gazteluostatua.eus)  
Tel.: 943 51 10 84  747 40 07 00